

Gogoeta Mundua bihar bertan amaituko balitz...

**Egoera. Aspaldi honetan gai sakonei buruz jarduten dugu hizketan.
Gaur, gutako batek hauxe bota du bat-batean:**

—Zer egingo zenuke, bada, mundua bihar bertan amaituko balitz?

- **Hitz kopurua:** gutxienez, **150** hitz
- **Baldintza:** abiapuntua izan dadila ondoko esaldia. Alegia, hori idazten hasi eta horri eman jarraipena:

Mundua bihar bertan amaituko balitz...

(Esaldi horretatik abiatuta, **150** hitz gutxienez)



IDAZLAN LABURRA / 1

AUKERATUTAKO GAIA

Gogoeta

150 hitz gutxienez

Aztertzailea-
rentzatAztertzailea-
rentzat

Mundua bihar bertan amaituko balitz ez nuke inolako dudarik izango inoiz egitera ausartu ez naizen gauzaren bat egiteko. Bizitza osoan gehien aprobeztatuko nukeen eguna izango litzateke, barre eta algaraz beteriko eguna.

Lex.

Ort.

Askotan imaginatu izan dut noizbait mundua amaitu daitekeela, eta momentu hori nolakoa izango den hamaika aldiz galdetu diot nire buruari, bizirik egongo naizen... baina ez dut inoiz pentsatu izan hau gertatu aurretik zer egingo nukeen.

Erref.

Nire burua ezagututa, goiz batean egin daitekeen abenturaren bat egingo nuke, esate baterako, euskal kostaldea eta bertako portu eta kaiak zerutik ikusi. Ezin izango nintzateke mundu honetatik joan itsasoaren askatasun liluragarria hodeien paretik ikusi gabe. Horrez gain, elikopterotik olatu gainera salto egingo nuke, marrazo eta izurde artera.

Ort.

Ad. Asp.

Hori gutxi balitz, arratsaldean gehien maite dudan mendi magala azken aldiz igoko nuke, Gorbeia. Bertan bizitako momentu ahaztezinak gogora ekarri, eta bueltako bideari ekingo nion berriz, egun askotan egin dudan bezala, gurasoen eta osabaren konpainian.

Ad. Lag.

Punt.

Azkenik, lagunekin elkartu eta barre algara ugari botako genituzke, parranda guztietan egin ohi dugun antzera.

Best.



PROBA IDATZIA IDAZLAN EREDUAK IDAZLAN LABURRA

Kalifikazioa: 6,5

**Aztertzailen zehaztasunak: + 1, 2, 3, 5, 6, 9
— 7, 17**

EDUKIA:

Atazan eskatutakoa bete du. Gaiarekiko hainbat alderdi ukitu ditu, eta modu ordenatuan garatu ditu.

MOLDEA:

Ideiek hari logikoa dute, eta lerrokadetan ondo banatuta daude. Erabili dituen egiturak aberatsak ez izan arren, zuzenak eta koherenteak dira. Puntuazioan izan ditu erabilera desegokiren batzuk.

ZUZENTASUNA:

Oro har, gramatikaren oinarritzko arauak zuzen erabiltzen ditu. Gogoeta hautatu du eta aditzaren (baldintza-ondorioa) erabileran izan ditu pare bat akats. Ortografian ere akatsen bat edo beste.